

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA SAILA

##### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa baten proiektua onestea, zein udalerriko hainbat menpeko toki-erakundetako kalifikazio xehatuko lerrokadura batzuk zuzentzeko baita, eta hasierako onespena ematea aldaketa horri**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran:

1. Onespena ematea Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldakuntza puntualaren proiektuari, zein Gasteizko udalerriko hainbat menpeko toki erakundetako zenbait hiri-lursailtako lerrokadurak zuzentzekoa baita. Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua landu du 2019ko urriko proiektua.

2. Hasierako onspena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen-aldaketa horri, zein Gasteizko udalerriko zenbait menpeko toki erakundetako zenbait hiri-lursailtako lerrokadurak zuzentzekoa baita, betiere 2019ko urrian idatzi eta dossierrean dagoen proiektuaren arabera.

3. Udalerriko administrazio-batzar eraginei hasierako onspenaren berri ematea, hogeit eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori igarotzen delarik erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, jarraitu egingo da tramitazioarekin.

4. Aldaketaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 29an

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**